



Ezagutu Basurtu Unibertsitate Ospitaleko zuhaitzak



©joselure

- | | | | | | |
|----------------------|-------------|------------|--------------|-------------|-----------------|
| 1 Sekoia Gorria | 4 Lizarra | 7 Ezpela | 10 Ereinetza | 13 Magnolia | 16 Gaztainondoa |
| 2 Sekoia Erraldoia | 5 Astigarra | 8 Haritza | 11 Artea | 14 Paga | 17 Ezkia |
| 3 Kanariar Palmondoa | 6 Olibondoa | 9 Pikondoa | 12 Gurbitza | 15 Hurritza | |



Pikondoa
Ficus carica

Jatorria
Jatorriz Asia egomendebaldekoa.

Ezaugarri nagusiak
Zuhaitz edo zuhaixka hostoerorkorra da, tamaina baxukoa, eta 7-8 metroko altuera du gehienez.

Zura
Especie horretako egurrak usteltzeko joera dauka, eta ez da egokia egur gisa. Egur horren hauskortasunaren ondorioz, ez da komeni pikondoetara igotzea, adarra hausteko arriskua baitago.

Bitxikeriak
Gizakiak landutako lehen fruituetako bat da; izan ere, proba batzuk daude K.a. 9400-9200 urtekoak. Ondoren, Antzinako Egiptoren eta erromatarren ohiko dieta izan ziren. Arteaz ari bagara, pikondoaren hostoak, parraren hostoekin batera, pintura eta eskultura askotan erabili dira protagonisten gorputz biluzia estaltzeko. Adibidez, Adan eta Eva. Bitxikeria gehiago: latexa (« piku-esnea ») hortzetako txantxarrari eta larruzaleko garatxoei aurre egiteko erabiltzen zen. Esnea mamitzeko ere erabili zen.

Jatorria
Hegoaldeko Europan eta Asia Txikian du jatorria. Lurzoru fresko eta hezeetako basoak osatzen ditu. Mundu osoko herrialde askotan sartua, laborantzarako.

Ezaugarri nagusiak
Zuhaitz erorkorra, tamaina handikoa eta enbor lodikoa. Azal leuna, grisaxka edo arrea, ale gazteetan. Kopa trinkoa eta oso adartsua. Hosto luze eta zerratuak. Fruitua gaztaina da.

Zura
Bere egur iraunkorra altzariak, landareentzako tutoreak, dekoraziorako eta eraikuntzarako habeak, upelak eta hesiak, hegalaburra arrantzatzeko bikornoak egiteko erabiltzen da. Ez du egurrerako balio.

Bitxikeriak
Antzinako herriek gaztainen oskolak eta zuhaitzaren hostoak erabiltzen zituzten ile hortia iluntzeko. Jaioberriei ilea hazten ere laguntzen ziela uste zen. Gaztainondoen basoak, neurri handi batean, hiru gaixotasun eta izurrite izugarriren ondorioz murriztu dira azkenaldian: tinta, txankroa eta liztor txikia.



Gaztainondoa
Castanea sativa



Ezkia
Tilia platyphyllos

Jatorria
Europan jatorria duen zuhaitz-espezie bat da. Espainian, Pirinioetako eta Kantauriko sisteman baino ez dago.

Ezaugarri nagusiak
Hostoerorkorra, 3-10 cm-ko hostoekin, ertz zerratuak dituena. Fruituak esfera forma du.

Zura
Ezki-egurra duela mende askotatik erabiltzen da. Bere erabilerarik ohikoena tailuak eta eskulturak egitea dira, baita ebanisteriako altzariak, estutxeria, apaindurako objektuak, eskudelak edo zapata-orkoiak egitea ere. Egurrezko txapak eta taulak ere egiten dira. Ohikoa da zurezko musika-tresnak, jostailuak eta torneaketak egitea.

Bitxikeriak
Especie honen propietate medikoak oso ezagunak dira, bere lorearen infusioa lasaigarria delako eta erlaxatzen laguntzen duelako. Txekiar Errepublikako zuhaitz nazionala da.